

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xabier Irureta Sasiain

*Zumaja,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Zumaian jaio zen 1936an, bi anaietan gazteena bera. Eskolan mesedetakoetan ibili zen lehenbizi eta Zarauzko Antonioanoetan ondoren. 13 urte zituela hasi zen lanean Zumaiaiko Beal lantegian, motorrak egiten. 19 urterekin soldadutza egitera joan zen, baina handik itzulitakoan lantegi berean jarraitu zuen. 28 urterekin anaiarengana joan zen Alemaniara eta bertan aritu zen lanean eta alemana ikasten. Alemaniatik bueltatu zenean, beste hainbat lantegitan aritu zen lanean, Mendaroko Azpiazun, esaterako. Zumaiaiko futbol-taldeko lehendakari izana da eta ikastolako sortzaileetako bat. EAJko kide, elkarrizketa egin zitzaionean ere alderdi barruan Erkiben aholku batzordean lanean ari da.

Zintak

ZUM-067

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-06-13
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

ZUM-068

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-06-13
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Eskolan Merzedarioetan Zumaian eta Antonioanoetan Zarautzen

- **Erref:** ZUM-067/002
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:04:24

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan merzedarioetan ibili zen fraideekin; kanpotarrak ziren. Merzedarioetatik Zarauzko Antonianoetara joan zen. Zumaian dena erdaraz ikasten zuen eta Zarautzen, aldiz, euskaraz. Euskara bultzatzen zuen fraide baten aipamena egiten du.

2. Margotzeko zaletasuna

- **Erref:** ZUM-067/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:05:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Matematika, geometria eta beste zenbait ikasgai ematen zituzten. Xabierrek margotzen ikastea nahi zue arren lan mundurako prestatu zen.

3. Futbola eta pilota

- **Erref:** ZUM-067/004
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:05:32. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bi jolas nagusi izaten zituzten: futbola eta pilota. Igande goizean meza entzun ondoren frontoira joaten ziren pilotan egitera.

4. Beal lantegian lanean

- **Erref:** ZUM-067/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:08:01. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

<p>Eskola amaitu zuenean Beal lantegian hasi zen lanean. Motor dieselak egiten ziren bertan eta Xabier mekaniko lanetan aritu zen. Iluntzetan eskola profesionalera joaten zen, "maestria" ikastera. 19 urterekin soldadutzara joan zen.</p>

5. Itsasontzien motorrak

- **Erref:** ZUM-067/007
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Beal lantegian motor dieselak egiten zituzten itsasontzientzat. Motorrak nolakoak ziren azaltzen du.

6. 19 urterekin soldadutzara Ferrolera

- **Erref:** ZUM-067/008
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>19 urterekin Ferrolera joan zen soldadutzara eta mekaniko lana suertatu zitzaion. 3 hilabete kuartelean egin ondoren gerrako itsasontzi batera bidali zuten eta bertan errekadista lanetan hasi zen, leku aldaketa eskatu eta Bilbora joan zen arte. Ama alarguna izateak soldadutzara joan gabe geratzeko aukera ematen zuen arren, Xabierri ez zitzaion aukera hori suertatu.</p>

7. Bilboko marinako komandandantzian

- **Erref:** ZUM-067/009
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:20:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzatik Bilboko marinako komandantzia militarrrera joan zenean Ejea deituriko komandante bat izan zuen eta harekin gertatuak azaltzen ditu. Soldadutzan zeuden lagunek alde zaharrera jaitsi eta kantuan egiteko ohitura zuten. Hilean 15 pezeta irabazten zituen eta "torpedista distinguido"-aren galoia eramaten zuen soinean. Ostiraletik astelehenera bueltatzen zen etxera.</p>

8. Ama neskame eta bera osaba-izeben etxean bizitzen

- **Erref:** ZUM-067/010
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:20:56. **Bukatu:** 00:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama mediku bilbotar baten etxean neskame aritu zen lanean Zumaian, Askuntzenen. Xabier eta anaia osaba-izebekin geratu ziren lehengusu batekin batera.

9. Soldadutzako itsasontziko bizitza

- **Erref:** ZUM-067/011
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:22:12. **Bukatu:** 00:25:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Soldadutza ez zuten goserik pasa. Ferrolen ibili zenean, itsasontzian egiten zuen bizimodua, kalera ateratzen baziren ere. Itsasontzia deskribatzen du, eta bertan gertatutako anekdota bat kontatzen du. Itsasoko maniobrak egin eta torpedoak botatzen zituzten. Torpedoen inguruko kontuak. Itsasontzian erabiltzen zuten arropa.

10. Alemaniako lantegi batera lanera

- **Erref:** ZUM-067/014
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:29:02. **Bukatu:** 00:32:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Soldadutzatik bueltatu eta Bealen jarraitu zuen lanean. 28 urte egin zituen, Alemanian bizi zuen anaiarengana joan zen eta berarekin hasi zen lanean. Dormunt-en lan egiten zuen, zubiak egiten zituzten lantegi batean. Alemaniako kontuak kontatzen ditu.

11. Alemanez ikasi eta lana egin

- **Erref:** ZUM-067/015
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:32:42. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Anaia bere kabuz joan zen Alemaniara, aurrez bazekien alemanez hitz egiten. Xabierrek, aldiz, lana eta alemaneko eskolak tartekatuz ikasi zuen; gaur joaten zen eskolara eta urte eta erdi ibili zen hango eskolan.

12. Alemaniako etxeko giroa

- **Erref:** ZUM-067/016
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Hango laneko lagun batekin gaizki konpondu zelako nagusiak makina batean, tornuan, jarri zuen bera bakarrik. Alemaniara lanera joaten ziren erbesteko lagunek lotarako tokia izaten zuten eta Xabier ere han egon zen. Etxe hartan izan zituen lagunak aipamena egiten du.

13. Euskaldunek erraz ikasten zuten Alemaniera

- **Erref:** ZUM-067/020
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:42:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Euskaldunek errazago ikasten zuten alemanieraz andaluziarrek baino, esaterako. Anaia etorkinen interprete lanetan aritu zen. Baita irratiko esatari ere.

14. Alemaniatik bueltan Mendaron lanean

- **Erref:** ZUM-067/022
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:43:08. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

Laburpena:

Irabazitako dirua baino aberastasun handiagoa izan zen Xabierrentzat hango kultura. Handik bueltatu zenean lagun batek Mendaroko tornu lantegi batean lana aurkitu zion eta han aritu zen lanean enkargatu moduan 10 urtez.

15. Hondartzan futbolean

- **Erref:** ZUM-067/024
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:49:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Gaztetan esku-pilotan eta futbolean ibili zen. Lehenengo baloia eskuratu

zuenekoa kontaktzen du eta orduko baloiak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Hondartzan aritzen ziren futbolean. Lehenengo futbol taldea "Txibiribi" izan zuen.

16. Zumaia eta inguruko pilotariak

- **Erref:** ZUM-067/026
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:53:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Zumaia eta inguruko pilotari ezagunak izendatzen ditu, Etxabetarrak eta Txikito Iraeta, esaterako. 50 urtez ibili zen Zarauzko futbol taldean, jarraian izan ez arren. Zumaiaiko futbol taldeko zuzendaritzan ere egon zen 7 urtez Joxe Antonio Alberdirekin batera.

17. Zumaiaiko arraun taldea

- **Erref:** ZUM-067/028
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:54:28. **Bukatu:** 00:55:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Zumaiaiko arraun taldearen aipamena egiten du. Entrenatzaile oriotarrak izan ziren; izendatu egiten ditu.

18. Antzerkia eta zinea

- **Erref:** ZUM-067/029
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:55:47. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Umea zela antzerkiak egiten ziren batzokian; batzuk aipatzen ditu. Bi zinema zeuden Zumaian: Maitena eta Amaia. Udan turista ugari ibiltzen zen. Orduko hotelak izendatzen ditu.

19. Zumaiaiko industria nagusia

- **Erref:** ZUM-067/030
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:57:36. **Bukatu:** 00:58:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Zumaiako industria nagusia zein zen azaltzen du eta lantegi ezberdinen aipamena egiten du: Karmelo Unanue, Beal, etab.

20. Zumaiako itsasontziak

- **Erref:** ZUM-067/032
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Orduko itsasontziak izendatzen ditu, "Glorioso San Telmo", esaterako. Zumaiako astilleroak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com